



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Behin betiko onespena ematea Basauriko Uriarte Sektoreko Hirigintzako Jarduketa Programari.

Basauriko Udaleko Alkatetzak haxe xedatu du, 2024ko urriaren 9ko 3783/2024 Alkatetza Dekretu bidez, Basauriko Uriarte Sektoreko Hirigintzako Jarduketa Programari dagokionez (HJP):

Lehenengoa: Behin betiko onespena ematea Gescoviendas, S.L.-k (IFZ: B95402533) Uriarte sektorerako aurkeztutako hirigintzako jarduketa-programari.

Bigarrena: Hirigintzako jarduketa-programa horren behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, edukien laburpen batekin.

Era berean, espediente osoa eskuragarri egotea Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikoa (helbidea: <https://www.basauri.eus/eu>).

Hirugarrena: Interesdunei hemen jasotakoa jakinaraztea.

BASAURIKO URIARTE SEKTOREKO HIRIGINTZAKO JARDUKETA
PROGRAMAREN EDUKIAREN LABURPENA

- Eremua: Basauriko HAPOa, Uriarte sektorea.
- Saillapena: lurzoru urbanizagarria.
- Erabilera globala eta kalifikazioa: bizitegi-lurzorua.
- Sektorearen azalera: 18.663,39 m² (1. EUa: 9.892,49 m²; eta 2. EUa: 8.770,90 m²).
- Eraikigarritasuna:
 - Sestra gainean: 8.659,17 m².
 - Sestra azpian: 5.919,17 m².
- Etxebizitza-kopurua: 82 (18 libre, babes ofizialeko 48, eta araubide tasatuko 16).
- Exekuzio-sistema: ituntzea.
- Aurrekontua:

	1. EUa (€)	2. EUa (€)	Guztira (BEZik gabe) (€)
Garapen- eta kudeaketa-gastuak	109.878,97	97.421,12	207.300,10
Urbanizazio-gastuak	509.501,64	451.735,40	961.237,04
KUDEAKETA + URBANIZAZIOA	619.380,61	549.156,52	1.168.537,13

- Urbanizazio-lanen egitaraua:
 - 1. exekuzio-unitateko urbanizazio-proiektua sei hilabeteko epean aurkeztu beharko da, HJParen behin betiko onespena argitaratzen den datatik zenbatzen hasita.
 - 1. exekuzio-unitateko urbanizazio-lanak 2 urteko epean egin beharko dira, urbanizazio-proiektua onesten denetik zenbatzen hasita.
 - Eraikitze-lanak hastea: gehienez ere, urtebeteko epean, dagokion exekuzio-unitateko urbanizazio-obra amaitzen denetik aurrera, eta, betiere, eraikitze- eta urbanizazio-lanak aldi berean egiteko aukera baztertu gabe.
 - 2. exekuzio-unitateari dagokionez, bigarren laurtekora arteko gehienezko epea, plan partziala onesten den datatik zenbatzen hasita.
- Ordezko bizenak: ez dago horrelakorik eman beharrik.



Egintza hau behin betikoa da administrazio-bidean. Beraren aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsa jarri ahalko da, administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegietatik dagokion hartan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den dataren biharamunetik aurrera.

Edozelan ere, aukeran, eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsa baino lehen, berraztertze errekurtsa jarri ahalko da, orain jakinarazten den administrazio-egintza eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den dataren biharamunetik aurrera. Berraztertze errekurtsa ezetsitzat joko da, baldin eta jarri zenetik hilabeteko epean ez bada haren gaineko ebazpenik jakinarazi. Kasua hori bada, sei hilabeteko epea egongo da jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsa jartzeko, administrazio-isiltasun bidez ezespena gertatu den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

Uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, jasotzen ditu errekurtsoen araubide juridiko horren oinarri juridikoak, 8. eta 46. artikuluetan, eta, betiere, beste hauekin bat etorritik: 39/2015 Legea, urriaren 2koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 114., 123. eta 124. artikulua; eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 52.1 artikulua (apirilaren 21eko 11/1999 Legearen idazketan).

Horrek guztiak ez du eragotziko norberaren eskubideak ahalik eta egokien defendatzeko egoki iritzitako beste edozein akzio edo errekurtsotara jo ahal izatea.

Basaurin, 2024ko urriaren 18an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren